

## **BI MILA ETA HOGEIKO EKAINAREN HAMABOSTEAN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA.**

Arrietan 2020ko ekainaren hamabostean, 18:00etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Aitor Agirre Urkidi alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Itxaso Otazua Etxebarria  
Jesus Maria Gondra Zubieta  
Ander Etxebarria Olalde  
Gartzen Agirregoitia Abad  
Ana González Gil  
Theo Norbert Bodo Reichenberger

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

### **I.- 2020ko LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDE MAHAIA OSATZEKO ZOZKETA.**

Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26 artikuluan adierazitakoa betez, 2020ko uztailaren 12ko Legebiltzarrerako Hauteskunde Mahaia osatzeko zozketa egin da. Honako hau da emaitza:

#### **MAHAIBURUA**

TITULARRA.- Ibon Bilbao Gezuraga.

- 1.go ORDEZKOA.- Itziar Martinez de Alegria Mancisidor.
2. ORDEZKOA.- Lucia Agirre Lopez.

#### **1.go BOKALA**

TITULARRA.- Iraitz Etxebarri Etxebarria.

- 1.go ORDEZKOA.- Lorea Lopez Apraiz.
2. ORDEZKOA.- Santiago Muga Alda.

#### **2. BOKALA**

TITULARRA.- Jon Hueso Berenguer.

- 1.go ORDEZKOA.- Aiskander Bilbao Aurre.
2. ORDEZKOA.- Abel Cuezva Urkiza.

### **II.-2020KO AURREKONTUKO 4 ZK.KO KREDITUEN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA ETA IRAUNKORTASUN TXOSTENA ONARTZEA**

Udal honen aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidezko Kreditu Aldaketaren Espedientea irakurri da.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da, eta espediente hori bat datorrela aplikatu beharreko araudiarekin adierazi du, zehazki, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. Artikuluan adierazitako betekizun eta izapideekin.

Eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Udalbatzak, EAJ/PNV udal taldeko ordezkarien aldeko botoekin (4 boto) eta eh Bildu udal taldeko ordezkarien abstentzioarekin (3 boto),

### ZERA ONARTU DU

**Lehenengo.-** Kredituen aldaketa espedientea onartzea, kreditu gehigarrien bidez, udal honen uneko ekitaldiko aurrekontuari eragiten diona, egindako proposamenarekin eta hurrengo kapituluko laburpenarekin bat etorritz.

### KREDITUEN GEHIKUNTZAK

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
320.471.00	COVID-19 aportazioa	0,00 €	19.000,00 €	19.000,00 €
320.480.00	COVID-19 aportazioa	0,00 €	1.000,00 €	1.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>		0,00 €	20.000,00 €	20.000,00 €

### KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Diru-sarreren eta/edo gastu partiden kontzeptuak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Diru-sarrera eta/edo baja handiagoak gastuetan	Errekurtoaren partziala
870.01	Diruzaintzako gerakina	20.000,00 €	
<b>GUZTIRAKOA, GASTU-IGOEREN ADINAKOA</b>		20.000,00 €	

**Bigarren.-** Egintza hori irmoa eta betearazlea denez, eta geroko izapiderik egin behar ez denez, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34.3.b artikulua araber,

bidezkoa da funtsetan esku hartzeko zerbitzuek kontabilitatean jasotzea berehalako ondorioekin onartutako kredituen aldaketa.

**Hirugarren.-** Iraunkortasun Txostena onartzea.

**III.- ARRIETAN JARDUTEN DUTEN TXIKIZKAKO MERKATARITZARAKO, OSTALARITZARAKO ETA EGOITZA FISKALA ARRIETAN DUTEN BESTE AUTONOMO BATZUENTZAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK EMATEKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEA. LAGUNTZA HORIEN XEDEA ARRIETAKO UDALERRIAN JARDUERA EKONOMIKOA BERRAKTIBATZEA DA, COVID-19REN IRUPZIOAGATIKO ALARMA-EGOERA DEKLARATZEAREN ONDORIOZ.**

Arrietan jarduten duten txikizkako merkataritzarako, ostalaritzarako eta egoitza fiskala arrietan duten beste autonomo batzuentzako laguntza ekonomikoak emateko deialdiaren oinarri arautzaileak irakurri dira. Laguntza horien xedea arrietako udalerrian jarduera ekonomikoa berraktibatzea da, covid-19ren irupzioagatiko alarma-egoera deklaratzaren ondorioz. Udalbatzak, EAJ/PNV udal taldeko ordezkarien aldeko botoekin (4 boto) EH Bildu udal taldeko ordezkarien abstentzioarekin (3 boto), onartzea erabaki du eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea. Eskerak aurkezteko epea 10 lanegunekoa izango da iragarkia iragartzen den egunetik eta Arrietako web orrian jartzen denetik hasita.

**“ CoVID-19 Dirulaguntza Deialdia ekarpenak**

**Aldatzeko/gehitzeko proposamenak**

- Galerak kalkulatzeko ez eskaera egin aurretiko hilabetea, baizik eta alarma egoera deklaratu zenetik galera gehien izan dituen hilabetea 8bakoitzak baloratzeko)
- Aurkezteko epea : 15 egun
- Zaintza : zaintzarako kontratu berriak 8adingabeak/mendekotasun egoeran daudenak) edo soldata gabeko eskaerak 600 € (ikusitako behean)
- Agendan, web-ean, bando baten bidea

**Zalantzak**

- 20.000 Kantitatearen zergatrik ?
- Betebeharrak eta segimendua ?
- BOB-en agertu behar ?

**Zaintza**

Dirulaguntzaren lerroak honako hauek izango dira :

- A. Hezkuntza zentroen itxi eraren ondorioz, 0-12 urte bitarteko haurren zaintzarako eragozpenak arintzeko laguntzak eta eguneko centro nahiz veste

antzeko zerbitzuen itxieraren ondorioz mendekotasun egoeran dauden zaintzarako egin diren kontratazioak diruz laguntzea.

Lerro honen barruan sartzen dira :

A.1. Covid-19 ondorioz 12 urte bitarteko haurren edo adingaben eta mendekotasun egoeran dauden zaintzarako egin diren kontratazioak diruz laguntzea.

Kontratazioa bakiotzak gehienez ere ( bizikidetzaren unitate bakoitzako bat) 600 €-ko laguntza jasko du, beti ere jardunaldi osoan egioten bada. Gainontzeko kasuan lanaldiaren arabera laguntza murriztuz joango da.

A.2. Covid-19aren ondorioz 12 urte bitarteko adingabeen edo mendekotasun egoeran dauden zaintzarako soldatarik gabeko baimen eskaerak eta antezkoek sortutako kalteak konpentsatzeko laguntzak.

Laguntza 600 €-koa izango da lan jardunaldi osoko murrizketa eskatu bada, beti ere bizikidetzaren unitate bakoitzeko bat erreferentziak hartuz. Gainontzeko kasuan eskatutako murrizketaren arabera laguntza murriztuz joango da.

Arrietan erroldatua egotea ezinbesteko baldintza izango da laguntza hau jaso ahal izateko.

Las líneas de la subvención serán las siguientes :

A. Ayudas destinadas a paliar las dificultades generadas para el cuidado de los menores de 12 años con motivo del cierre de los centros educativos y ayudas destinadas a paliar las dificultades generadas para el cuidado de las personas dependientes con motivo del cierre de los Centros de Día así como de otros servicios destinados al cuidado de los mismos.

Esta línea cubrirá las siguientes actuaciones :

A.1. Ayuda a las contrataciones efectuadas para el cuidado de menores de 12 años o dependientes como consecuencia del Covid-19. Cada contrato se subvencionará con un importe máximo de 600 € (un contrato por cada unidad convivencial) y en jornada completa. En el caso de que la jornada sea parcial se reducirá proporcionalmente la ayuda a recibir.

Será requisito obligatorio para la percepción de esta ayuda estar empadronado en Arrieta.

A.2. Ayudas para la compensación de las situaciones generadas por las solicitudes de permiso sin sueldo y asimilables para el cuidado de menores de 12 años o dependientes como consecuencia del Covid-19. El importe de la ayuda

será de 600 € si se ha solicitado la reducción de la jornada completa, siempre teniendo en cuenta como referencia uno por cada unidad convivencial. En el resto de los casos la ayuda se irá reduciendo en función de la reducción.

Será requisito obligatorio para la percepción de esta ayuda estar empadronado en Arrieta.”

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du bilkura zazpitan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko